

LOMCE: IRAILAREN 1EAN ZER?

LOMCE 2013ko abenduaren 10etik indarrean dago.

Nafarroako Gobernua aitzindari izaten ari da hezkuntza erreforma basati hau nafar erara aplikatzerako orduan, jada marko legala egokitu eta curriculum dekretuak ere argitaratu dituelarik.

Eusko Jaurlaritzak, berriz, ez du oraindik LOMCEa gure ikastetxeetan sar ez dadin bermatzeko eta erreformari aurre egiten dion neurri argirik hartu. Are gehiago, LOMCEa hainbat ataletan egokitu eta abian jartzeko neurriak bidali ditu ikastetxeetara.

Nola jokatu behar dugu eskola komunitate nahiz langile moduan egoera honen aurrean? LOMCEri aurre egin eta gure hezkuntza eraikitze bidean oinarritzko proposamena pasa den ikasturtean hainbat eragilek garatu genuen gida dela uste dugu. Bertan oinarrituta eta ikasturte hasiera honetan ikastetxeetan emango diren egoerei modu egokienean erantzuteko ondorengo proposatzen dizuegu:

- Informazioa bildu eta bai hezkuntza eragileekin baita gainerako ikastetxeekin ere elkarbanatu.
- Heltzen den agindu bakoitzaren aurrean langile eta eskola komunitatean aurre egiteko moduak bilatu ahalik eta adostasun zabalenaekin.
- Gure eskoletan neurri hauen aurrean eta orokorrean LOMCEren aurrean mobilizazio giroa mantendu.

Momentuz, EAEko ikasturte hasierako ebazpenak kezka sortzen dizkigun hainbat kontu garatu dira:

- **Ikastetxeen kudeaketa demokratikoa.**

Proposamena:

- ✓ Ikastetxe bakoitzean kide guztien (zuzendaritza, hezkuntza-langile, familia, ikasle eta herritarren) parte-hartzea eta erabakitze ahalmena bermatu eta erabaki guztiak modu parte-hartzaile eta demokratikoan hartuko diren konpromisoa lotu.
- ✓ Ikastetxeetan batzarrak sustatu.
- ✓ Herri eta auzoetan hezkuntza mahai edo batzordeak bultzatu.

- **Euskalduntzea eta ikasle Euskaldu Eleaniztunak sortzea.** Eusko Jaurlaritzak Wert ministroarekin oraingo hizkuntza ereduen sistema bere horretan mantentzea onartu du, hau lorpen bat bezala salduz. Jakina denean, eta azken urte luzeetako ikerketa guztiek ala diote gainera, hizkuntza ereduen sistema euskalduntzean pauso berriak emateko ez dela baliagarri.

Proposamena:

- ✓ Eskoletan euskara hizkuntza-ardatza izateko konpromisoa hartzea, bai ikasgelan baita eskolako gainerako eremu guztietan ere.
- ✓ Auzoetako edo herrietako gainerako erakunde eta eragileekin ikastetxeko eremutik haratago zabalduko den hizkuntza proiektu osatua aplikatzea, ikasleak euskalduntzeaz gain, beste hizkuntza batzuk ikasteko atak zabaltzeko.

- **Inguruaren ezagutza.** LOMCEk Natur zientziak eta Gizarte Zientziak moduan ezberdintzen da, bi ikasgai ezberdinetan banatuz. Eusko Jaurlaritzak ikasgai bakar moduan mantentzen du, baina bukaerako ebaluazioa bitan banatzeko beharra ezartzen du.

Proposamena:

- ✓ Ikasgaia orain arte bezala lantzea eta amaierako aktetan nota bera jartzea ikasgai ezberdinetan.

- **“Erlijioa” eta “Giza eta herritarren baloreak”.** LOMCEk aukeran eman beharra eta hauek ebaluatu beharra ezartzen du. Hauen edukiak erlijio konfesionalen hierarkiaren esku uzten ditu edo LOMCE garatzeko curriculum dekretuetan finkatzen dira.

Proposamena:

- ✓ LOMCEk inposatu nahi dituen eduki eta ikuspegi atzerakoi, merkantilista eta adoktrinatzailak curriculumetik atera eta hezkuntza integral, laiko eta aurrerakoi baten baitan kokatu eta landu. Besteak beste, ikasgai hauen eta bertan inposatu nahi den edukiaren ordeztatu mundu ikuskera eta sinesmen ezberdinen lanketa, giza-balioen hezkuntza, hezkidetzatza, aniztasuna, ezberdintasunekiko errespetua, kritikotasuna, elkartasuna, justizia soziala, inguruarekiko interdependentzia eta errespetua, jasangarritasuna, etab. oinarri izango dituen hezkuntza bultzatu.

- **Lehen Hezkuntzako 3. mailako azterketa orokorra.**

Proposamena:

- ✓ Azterketa 3. mailako tutoreek egin beharko badute ere, lankideen eta gurasoen babesa eta proba ez egiteko ahalik eta adostasun zabalena eta konpromisoa lortzen saiatu behar dugu. Hirugarren mailako tutoreez gain, gainontzeko langileen nahiz gurasoen kopuru esanguratsu batek proba ez egiteko konpromisoa adierazten badu, probak ez dira egingo. Hau ezinezkoa izanez gero salaketa eta mobilizaziorako bideak jorratu behar ditugu. Eskola Kontseilu edo ikastetxeko erabakitze organoek ere, eskola bezala, azterketa egunean hartu beharreko jokabidea adostu (jaialdia, txangoa...).

Ikasturtean zehar LOMCE garatzen jarraituko duten aginduak heltzen joango zaizkigu eta hauen aurrean gure proposamenak luzatzen jarraituko dugu.